



HAUR PARKEA

Puzgarriak, zezen mekanikoa, zinea... ostiralean

Urtero bezala, haur parkea izango da ostiralean, kiroldegian (11:30-13:30 eta 17:00-19:30). Aukera zabala izango da: puzgarriak, haurtoentzako ludoteka, dantza egiteko pantailak, zezen mekanikoa eta 5D zinema kabina. ||

ATEZ ATEKOA

Bulegoak, ordutegi berria

Atez Ateko bulegoak ordutegi berria izango du bihurtik aurrera: astelehene eta ostiralean, 09:00-11:00; eta asteazkenetan, 11:00-13:00. Bulego ordutegitik kanpo, telefonoa eta emaila egongo da: 900 102 838 eta atezate@astigarraga.eus. ||

KRONIKA

Bulegorik ez, kiroldegian

Astigarragako Kronikak-Urumeako Kronikak berrantolaketa bat egin behar izan du funtzionamendua hobetze aldera eta hemenetik aurrera ez du bulegorik izango kiroldegian. Hemaniko ohiko bulegoan egongo dira langile guztiak (Larramendi 11, behea). Hala ere, orain arte bezala jarraituko du lanean Kronikak Astigarragan, eta edozein albiste edo ohar argitaratu nahi izanez gero, jarri harremanetan orain arte bezala: astigarraga@kronika.eus edo 688 660 714/943 33 08 99. ||

UDAL EGUTEGIAK

Egutegiak lortzeko aukera

2015eko Udal egutegiak esku-ragarri daude. Ale bat nahi duenak udaletxe edo kultur etxetik pasa behar du. ||

FARMAZIAK

Gaueko guardiak, Echevesten

2015eko gaueko guardiak guztiak (22:00-09:00) Hemaniko Echeveste farmaziaz egingo ditu. Urtero aldatzen da farmazia. Eguneko guardiak, berriz, txandaka egingo dituzte Astigarraga, Hernani eta Urrietako farmaziek. ||

XXII. TXOTX IREKIERA

'Loreak' pelikulako aktoreek irekiko dute txotx denboraldia

Nagore Aranburu, Itziar Ituño eta Itziar Aizpuruk oihukatuko dute «Gure sagardo berria!», lehenengo kupela irekiz. Urtarrilaren 14an izango da, Bereziartua sagardotegian.

HAMABOST egun besterik ez dira geratzen txotx denboraldi berriari ekiteko eta astelehenean jakinarazi zuen Sagardoaren Lurraldeak zeintzuk izango diren aurtengo protagonistak. Hain zuzen, *Loreak* pelikulako hiru protagonistek irekiko dute aurtengo lehenengo kupela, «Gure sagardo berria!» oihukatuta. Nagore Aranburu, Itziar Ituño eta Itziar Aizpuru dira aktoreak. Urtarrilaren 14an izango da, 13:45etan. Eta aurten, Bereziartua sagardotegian egingo da irekiera ekitaldia.

Sagar dantza eta sagardogileen soka dantza
Aurtengo ekitaldiak berezitasunik ere izango du. Erritual koreografikoa egingo dute protagonistak sagardotegira sartzerako gonbidatzeko. Txalapartarien deiarekin, Arizkungo sagar dantza dantzatuko dute Astigarreko kideek eta gero, sagardogileek soka dantza egingo dute, elkarri eskua emanda. Halaxe bideratuko dituzte protagonistak kupelera.

Sagardo berriaren aurkezpena
Ekitaldia eguerdiko 12:00etan hasiko da. Hain zuzen, Andoni Gartzia alkateak uzta berria aurkeztuko du Sagardoetxea Museoan. Sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarriak azalduko ditu, sagardoaren



laz, Alorrenea sagardotegian egin zen irekiera, Kalakan taldearekin.

munduko gertaera garrantzitsuenekin batera.

Ondoren, 12:45etan, protagonistek sagarrondo bat landatuko dute Sagardoetxeako sagastian.

Pintxoak, tabernetan

Festa herrira gerturatu nahi du Sagardoaren Lurraldeak eta aurten ere Pintxotx ekimena izango da. Hau da, 18:00etatik 20:00etara, sagardo berria eta pintxo bereziak eskainiko dituzte Astigarragako taberneak. Horrez gain, sagardotegiek ateak irekiko dizkiete herriko kultur taldeei, afaltzeko. ||

EGITARAUA

11:30-12:00 Komunikabideei akreditazioak emango zaizkie Sagardoetxean.

12:00 Prentsaurrekoa Sagardoetxean. Bertan azalduko dira 2014ko uztaren ezaugarri nagusiak, sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarriak eta sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuenak.

12:45 2015ko Sagardo Berriaren Eguneko protagonistak sagarrondo bat landatuko du Sagardoetxeako sagastian.

13:30 Txalapartarien deiarekin batera, sagar dantzak eta

sagardogileen soka dantzak protagonistak kupelera gerturatuko dituzte.

13:45 Astigarragako Bereziartua sagardotegian "Gure Sagardo Berria" oihu eginda lehen kupela irekiko da eta honekin batera, 2015eko txotx denboraldi berriari hasiera emango zaio.

Ondoren, denboraldiko sagardotegiko lehenengo menua dastatuko da.

18:00-20:00 Pintxotx Astigarragako tabernetan.

20:30 Herriko elkarten afariak sagardotegietan.

XAGUXAR

BECeko haur parkera, irteera

Urtarrilaren 5ean, astelehenean joango dira ludotekako haurrekin. Oraindik lekua dagoela azaldu dute eta izena eman daiteke.

XAGUXAR aisialdi taldeak irteera antolatu du astelehenean. Ludotekako haurrekin BECen antolatzen den haur parkera joango dira. Autobusean joango dira eta lekua soberan dagoenez,

herritarrei zabaldu diete aukera. Izena, lehenbailehen eman behar da: info@xaguxar.org, ludotekan (ikastolan) edo kultur etxean. Prezioa: 18 euro autobusa eta sarrera. 09:00etan

abiatuko dira eskolatik eta 18:30etan izango da buelta. Bakoitzak bere bazkaria eraman behar du. Jakinarazi dute egun horretan ez dela jolas aretoa irekia egongo. ||



☎ **TELEFONOAK** | Taxiak: 943 55 52 77 | Udaltzaingoa: 092 | IDYA: 943 46 46 22 (Hernani)

Autobusak: Areizaga - 943 45 27 08 | Anbulatorioa: 943 33 56 44

✚ **FARMAZIAK Egunez:** | **ASTEAZKENA Urrutia** Etxeberri auzoa 1 (Florida), Hernani - 943 557738 | **OSTEGUNA Echeveste** Elkano 9 behea, Hernani - 943 552087 | **OSTIRALA Castilla** Urbietta 7, Hernani - 943 552941 | **LARUNBATA Tanco** Idiazabal 39, Urnieta 943 550942 | **IGANDEA Tanco** Idiazabal 39, Urnieta - 943 550942 | **ASTELEHENA Chucla** Kardaberaz 48, Hernani - 943 5517931 | **ASTEARTEA Castilla** Urbietta 7, Hernani - 943 552941 | **Gauz: Aizpuru** Latsunbeberri 11, Hernani - 943 336077

EGURALDIA



GAUR Hotz kontuekin jarraituko dugu eta goizaldean izotza ia denean botako du. Zeruan, eguzkia izango da nagusi. Haizea ekialdetik sartuko da. Min.0° / Max.9°.



BIHAR Aldaketarik ez urte berriari ongi etorria emateko. Egunsenti hotza izango dugu eta giro eguzkitsua. Ekialdeko haizea ibiliko da. Min.0° / Max.9°.

(euskalmet)

HERRI LASTERKETA

Iban Verdugo eta Sandra Rodrigo izan ziren azkarrenak

'Euskaraz bizi nahi dut!' eta Inuxente Eguneko lasterketa izan zen larunbatean. 34 umek, 2 gaztek eta 53 helduk hartu zuten parte.

EGURALDIAK ez zuen batere lagundu. Euria etengabe egin zuen, eta hotza eta haizea ere presente izan ziren lasterketa osoan. Hala ere, horrek ez zien euskeraren alde korrika egiteko gogoia kendu astigartarrei eta inguruko bizilagunei. Ume eta heldu ugari hartu zuten parte Euskaraz bizi nahi dut! eta Inuxente Eguneko lasterketan.

Adin ezberdinetako umek hartu zuten parte: 2-6 urtekoak 11 izan ziren eta 7-12 urtekoak, 23. Gazteetan, 2 lagunek eman zuten izena eta helduekin hartu zuten parte. Hori horrela, nagusien lasterketan 55 lagunek hartu zuten parte. 6 kilometro egin behar izan zituzten horiek. Azkarrenak, Iban Verdugo hernaniarra (22:20) eta Sandra Rodrigo astigartarra (26:50) izan ziren. Gizonezkoetan bigarrena Borja Velez donostiarra izan zen (22:21) eta hirugarrena, Julen Urkiola astigartarra (23:35). Emakumezkoetan, Paki Lizaso helmugaratu zen bigarren (27:40) eta Maria Goya hirugarren (28:18); bi hauek ere, astigartarrak. Denera, 16 emakumezko



Helduek, 6 kilometroko lasterketa egin zuten. Argazkiak eta bideoa, interneten.

Argazkia: Xalima

hartu zuten parte helduetan eta 53tik 43, astigartarrak izan ziren.

Udaleko Kirol Sailak eta Mundarro kirol elkarteak antolatu zuen lasterketa eta ardurdunek eskerrak eman nahi dizkiete bidegurutzeetan egondako kideei, Astigarragako Txirindulari Taldeari eta Ipintza, Zapiain, Lizeaga, Petritegi, Mina eta Bereziartua sagardotegiei sagardoa emateagatik. «Eta noski, korrikalari guztiei», gaineratu dute. Bideoa, youtubeen. ||



16 emakumek hartu zuten parte.

Argazkia: Xalima

GABONETAKO AISIALDIA



Egun hauetan ume ugari elkartu dira kultur etxean. Argazki gehiago, interneten.

Joko aretoan ibiltzeko azken eguna, gaur

Haur eta gaztekoentzako hainbat ekintza antolatu dira Gabonetan zehar. Horien artean, joko aretoa izan da zabalik kultur etxean eta gaur izango da bertan ibiltzeko azken aukera (11:00-13:00). Astelehenean itxita egongo da BECeke haur parkera irteera antolatu dutela eta. 9-12 urtekoentzako mahai-jokoak, kartak, eskulanak... eta hainbat makina daude joko aretoan: Crazy taxi, Millenium eta Radikal... Horrez gain, Gaztelekutik (12-18 urte) zinera joango dira ostiralean. Gaur eta bihar itxita egongo da. ||

PRESO GAIXO LARRIEN SOSTENGU PLATAFORMA

«Preso gaixoak etxeratzeko, dinamika etengabea sortzeko garaia da»

Eskualdeko plataformak prentsaurrekoa eman zuen larunbatean. Bilborako dei egin dute.

ESKUALDEKO preso gaixo larrien sostengu plataformak prentsaurrekoa eman zuen larunbatean, Hernanin. Preso gaixoak etxeratzeko, konpromisoak hartu eta dinamika ezberdinetan parte hartzeko garai dela adierazi zuten: «Sasi guztien gainetik, gatazkaren konponbiderantz, Euskal Herriaren elkarbizitza demokratiko-rantz, inoiz baino beharrezkoago dugu espetxe politika honen zutabe internen salbuespen neurriak etetea eta gaixo dauden presoak etxera ekartzea. Eta horretarako noski, denon indarra beharrezkoa da. Jada ditugun dinamika hauspotu eta berriak sortzeko garaia da, preso gaixoen etxeratzearen aldeko dinamika etengabea sortzeko garaia da».

Urtarrilaren 10ean, Bilbora Euskal Herriko ia 500 preso politikoa eta gaixotasun larriak dituzten 10 presoak gogoan izan zituzten. Bereziki, eskualdeko Gari Arruarte hernaniarra eta Ibon Fernandez lasartearra: «Hemen gaude, konpromisoa adierazten dugu dinamika anitzak elikatu eta sustatzeko, Ibon eta Gari eta beste presoak etxera ekartzeko. Hori horrela, bat egiten dugu urtarrilaren 10ean Bilbon egingo den mobilizazio erraldoiarekin eta Buruntzaldeko herri ezberdinetan egingo diren dinamika ezberdinekin».

Eta herritarrei ere dei egiten diete: «Denok gara beharrezkoak, zu, ni eta hura, zuek, gu eta haiek. Guztion ekinez: Ibon, Gari eta beste preso gaixoak etxera! Salbuespen neurriak eten!». ||

TXIRRINDULARITZA

Beñat Blazquez irabazle, Openean

Gipuzkoako Challengeko 6garren jardunaldia jokatu zen larunbatean, Belodromoan, eta Open kategorian, Beñat Blazquez astigartarrak irabazi zuen. Belodromoan lehenengo aldiz egiten zen proba batean hartu zuen parte: motelen lasterketa deiturikoan. Arbitroak abixua ematean, iteerara gerturatu behar izan zuten eta bertan hiru minutuz oreka mantendu, lurrean hankarik jari gabe eta iteerako marra pasa gabe. Ondoren, arbitroak txistu egin eta sprintean buelta bat zeinek azkarrago eman lehiatu ziren. Lehia estua izan zen eta foto finisharen bidez erabaki zen irabazlea. Bestalde, Donosti Berri taldeko txirindulari astigartarrek postuak mantentzea lortu dute. Juniorretan, Gorka Urkiola laugarren dago. Kadeteetan, Urko Semperenak hirugarren jarraitzen du eta Tomas Otermin hobetzen ari da. Larunbatean, zazpigarren jardunaldia. ||

OBRAK

Anuska eta eskolako lanak, aurrera

Anuskako eta Ikastolako lanei lotuta, lehiaketa publikora aurkezteko epea astelehenean bukatuko da eta kontratazio mahaia orduan abiatuko da. Asmoa da urtarileko Plenoan esleipenak onartzea eta lanak otsailera hastea. Ikastolako lanen kontratazioa 968.174,18 eurotan (BEZ gabe) baloratu da eta Anuskakoa 315.851,14 eurotan (BEZ gabe). ||

ESKU PELOTA

Partidu gogorra eta polita

Trinketean, Gipuzkoako Banakako Txapelketa jokatzeko ari da Oier Gurtzealde eta larunbatean galdu egin zuen 40-37 Usurbilgo Mikel Landaren aurka. Oso partidu gogorra eta polita jokatu zuten. Galdu arren, astigartarra semifinalak jokatzeko sailkatua dago eta bi aste berri hasiko dira. ||